

## Gabriel Rufián

# “GAUZAK ALDATZEKO AUKERA BAT BAINO EZ DA INDEPENDENTZIA”



Politikari gutxi jaso ditu horrenbeste txalo eta irain hain denbora laburrean. Bilorik ez diozu ahoan aurkituko, salbuespenezko garaiotan, Espainiako politika astindu duen *outsider* katalan honi. Esquerra Republicana de Catalunyaen Bartzelonako egoitzan hartu gaitu Gabriel Rufiánek. Mediaseteko kamerak zain ditu atean, baita kalez jantzitako hainbat polizia ere. Elkarrizketa egin eta bi egun geroago Guardia Zibilak Generalitateko 12 goi kargu atxilotuko ditu, tartean bere alderdikide batzuk, eta milaka lagunek kaleak okupatuko dituzte Kataluniaren aurkako estatu kolpearen lehen kapitulua salatzeke.



**Axier Lopez**

@axierL

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

**Guardia Zibilak erreferendumaren webguneari ezarritako zentsura informatikoki gainditzeko irizpideak zabaldu ditu nork eta Generalitateko president-ak. Oso gauza eroak gertatzen ari dira egunotan, ezta?**

Bai [barre artean]. Batzuentzat 'shock' hutsa da, baina hemen, salbuespenezko garaletan, salbuespenezko koalizioak egin ziren eta oso bestelako mundue-tatik zetozen pertsonak, Carles Puigdemont eta Anna Gabriel kasu, egun jardun berean ari dira.

**"Zilegitasuna vs agintea" al da bizitzen ari garena?**

Nik uste baietz. Estatuak legeak baino ez ditu eskura; gau bakar batean beraiek aldatu zuten konstituzio bat, 40 urtez bortxatu dutena, 47 eta 128 artikulua kasu. Aldiz, egun, paparra jasota aldarrikatzen dute. Erabateko hipokresia da. Gizartea ez da legeen arabera moldatu behar, gizartea da legeak egokitu behar dituen. Gainera, gauza bat da legalitatea eta beste gauza bat, oso bestelakoa, zilegitasuna. Orain 80 urte, egunean 8 orduz lan egitea, greba egiteko eskubidea edo bozkatzeko unibertsal legez kanpokoak ziren.

**Bidean honakoa zioen kartel batekin egin dut topo kalean: "Desobedientziarik gabe, ez da independentziarik".**

Ni oso eroso sentitzen naiz desobedientzia hitzarekin, baina, zinez, uste dut askoz zuzenagoa dela norberaren buruarikiko obedienciaz hitz egitea. Horixe da Kataluniako parlamentuak egin duena: bere buruari obeditu, hitzemandakoa bete eta agindu independentistari hutsik ez egitea. Oposizioa, era ez-zilegi batean, kexu zen hauteskunde-programa betetzen ari ginelako, hain zuzen. Apaltasun osoz diot, horixe da politikagintzaren etorkizuna. Kataluniako parlamentua erakusten ari da ondoren gertatu behar duena, baita Espainiako Kongresuan ere.

**CUPeko alkateak agindu judizialak desobeditzeko prest agertu dira. Zenbait girotan azkura eragin du erabaki horrek, Mossoekin gatazka eragingo duelakoan.**

Puigdemontek berak, gutako batzuen antipoda ideologikoetan dagoenak, esan du ez diola balizko inhabilitazioari men egingo, President-a jarri edo ken dezakeen bakarria Kataluniako herria

delako. Gauza bera adierazi du Oriol Junquerasek. Aurrerapauso handia da, inoiz horrelako urratsik egitea askori pentsaezina egiten zitzaion pertsona batzuen aldetik.

CUP eta ERC-ko alkateek, baita PDeCATekoek, eta, seguruenik, beste alderdiren batekoek ere, egingo dutena ez da desobeditzea izango, beren jendearekiko konpromisoa betetzen saiatzea baizik. Lehen, bozkatzera ez joateko edo ezetza bozkatzeko asmoa zuen pertsona asko, egun, bozka ematera joango da eta batzuk baietzaren aukera aztertzen ari dira, ulertu dutelako ez dela zilegi haien herrian demokratikoki hautatu duten alkatea jazartzea.

**Urriaren 1az galdetuta, batzuk estatu kolpeaz mintzo dira, beste batzuek diote, erreferenduma egitekotan, arazo asko izango direla...**

Egia esan, erreferendumarekin lotutako pertsona edo bileretan, nik ez dut ezagutu plan alternatiboren bat proposatu duen inor. ERC eta CUPen aldetik guttiz ziur nago horrelakorik ez dagoela, eta PDeCATen aldetik ere, uste dut ezetz. Erabateko gehiengoa daukagu parlamentuan, milaka eta milaka pertsona daude kalean eta president-ak, presidente-ordeak eta gobernua oso argi daukate erreferenduma egin egingo dutela. Hori nola geldiarazten da? Guardia Zibila jendea atxilotzera bidaliz? Komunikabide eta inprimategien aurrean polizia jarritz? Erreferendumaren posterrak bahituz? Lapurtu ostean kartel horiek kalean jarrita baino famatuago bilakatzen ari dira eta. Geldiezina da. Joan Tardak ondo dioen gisan, historiak egiaztatu du ez dagoela demokrazia gelditzerik, jendea kalean geldiezina dela. Erreferenduma egin egingo da, beste alternatibarik ez dagoelako. Liskar eta gatazka politikoak hauteskontzien aurrean konpontzen dira.

**Espainiako Polizia eta Guardia Zibila ez dira erreferendumaren aurka lanean ari diren agente bakarrik. Herri askotan Udaltzaingoa eta Esquadra Mossoak dira jendea jazartu ala zentsura aplikatzen ari direnak.**

Guardia Zibila komunikabide baten aurrean jarri denean, guk ez ditugu haiek seinalatu. Areago, gu Espainiako Kongresuan duintzen saiatu gara guardia zibilen lan-baldintzak, kasu askotan oso kaskarrak direlako. Klase politikoarena

da erantzukizuna. Gure aldetik arduragabea litzateke polizia hau edo beste seinalatzea. Baina ziur naiz, une egokian, Esquadra Mossoek ez dutela Kataluniako herriaren aurka egingo.

**Poliziak bahitu ditu 100.000 kartel kalean inork ikus ez ditzan, baina aldi berean "legez kanpoko" kartel horiek Twitter bidez zabaldu ditu mundu osoak ikus ditzan.**

Dramatikoki, Espainiako Barne ministro Zoidok horrelako txioak idazten ditu, horri esker hauteskundeak irabazten dituelako. PP, Ciudadanos, Auzitegi Konstituzionala, Fiskaltza eta Aranzadi brigada mediatikoak horrela jokatzeko Espainiako Estatuan hauteskundeak irabazten dituztelako era horretan. Hemen, aldiz, bigarren mailako alderdiak dira, PP bereziki.

Anaiatzat ditugun politikari batzuek kontrakoa irudikatu arren, Rajoy ez dago Moncloan efektu meteorologiko baten ondorioz. Berak hauteskundeak irabazten ditu, eta are gehiago irabazi ditu Carme Forcadell epaileen aurrera eramanez. Pankartak egiteko txantiloiei argazkiak eta bideoak eginez, Pablo Escobarren kokaina bailiran, irabazten dituzte hauteskundeak Espainian.

**Gero eta errepresio handiagoa, orduan eta elkartasun eta mobilizazio handiagoa. Hori al da ekuazioa?**

Ez. Oxala errepresiorik ez balego, baina egon egongo da. Bortizkeria judizialak jarraituko du. Inhabilitazioak. Guda zikina. Guk ondo egiaztatu dugu "Katalunya operazioa" ikertzeko Kongresuan eratu zen komisiok. Guda zikina ez da iragana, gaur egun gertatzen ari da eta gertatuko da aurrerantzean ere. Egia esan, seko aspertuta egongo dira gure atzetik dabilzanak, oso bizitza aspergarriak ditugu eta.

**Prozesuak aurrera egin ahala, Kataluniako gizarteak ezkererantz egin duela begi-bistakoa da.**

CUPen moduko agerpenak dira horren bermea. Kasu askotan haiek izan dira prozesu honen lema, jende askoren kontzientzia *nilker hiztunarena* egin dute. ERC alderdia gero eta handiagoa da, askotariko pertsonak biltzen ditu. Horrek indar politiko garaile bihurtzen du. Nire itxaropena da, noizbait, horrelako zerbait gertatzea ezker abertzaleari Euskal Herrian.



Beste ezker batek, Podemosek, dio Rajoyk alde eginez gero, dena aldatuko dela. Hori oso diskurtso tranpatia da, esan nahi duelako PSOE, Ciudadanos, Auzitegi Konstituzionala eta enparauak konbentzitu behar dituzula. Anaitasuna eskatzen digute. Baina gure ustez hori beste gauza bat da, adibidez, irabaz dezakeenari irabazten uztea eta ez esatea zain egon behar dela besteak irabazi arte.

Burgesiari buruzko galdera ondokoa da: zergatik da txarra PDeCATEkin autodeterminazio prozesu bat adostea eta, aldiz, ona da PSOErekin adostea Espainiako erreforma? Momentuz, erantzuna isiltasuna izan da.

**Beste mota bateko konpromisora salto eginez, lehendakaria ere oso argi min-tzo da.**

EAJren barruan zati bat dago Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldekoa dena erabat. Zati horri errespetua diot, baina PPK aurrekontuak EAJri esker onartu zituen. Iñigo Urkulluren adierazpenak klabe horren arabera ulertu behar dira. Ulertzen ez dudana da zergatik batzuek uste duten EAJk erreferendumak bermerik ez duela dioelako gure prozesua kaltetu behar duen. EAJ gaur egun alderdi autonomista da ia osotasunez. Espainiako Kongresuan interes propioak dauzka eta lehentasunezko bazkidea da PPrentzat. Hein batean, logikoa da. Batetik, hori egiten duen lehen aldia ez delako, eta, bestetik eta gehien bat, eskuineko alderdi bat besterik ez delako EAJ.

**Barcelona en Comú-ko Gerardo Pisarellok dio “mobilizatu eta bozka dezagun autoritarismo zentralistaren aurka oldartze-ko” eta Podemoseko Pablo Iglesiasek “PP botatzeko laguntza behar dugu”. Alde handi xamarra dago, ezta?**

Buruzagitzaren eta bozka-emaile, militante, zale eta haiengan konfiantza jarritako duen jendearen artean bereizketa egiten saiatzen gara. Baina badira hainbat lider Podemos, Catalunya Sí que es Pot, Barcelona en Comú eta Catalunya en Comú-n, motzean, ondoregoa diotenak: “orain ez datorkit ondo”.

Oso eskertzekoa da garrantzi handiko hainbat kidek, lehen minututik, erakutsi duten ausardia; Jaume Asens, Albano Dante edo Marta Sibina, adibidez. Zirkulu eta asanbladetan erreferenduma eta 78ko erregimena hausteko duen gaitasuna kosta ala kosta babestu eta defendatu dituen jendea da. Aldiz, beste batzuen planteamendua da, zilegi izanik ere, etorkizunean PSOErekin adostuko duten proiektuan kargudun bilakatzea. Eta orain erreferendumaren alde agertzearekin bateraezina irizten diote. Baina zorionez afiliatuak eta militanteen iritzia gailendu da. Ziur gaude aktiboki parte hartuko dutela

**Podemoseko Manolo Monereorekin izandako buruz-burukoan, ondorengo esan zion CUPEko Pau Llonch-ek: “Espainiako ezkerreko autodeterminazio eskubidearen alde dago, baldin eta ez bada inoiz gauzatzen”.**

Egia borobila da. Paurekin oso harre-

man ona daukat. Gaur egun ezkerreko duen bururik onenetakoa dela iruditzen zait. Noizbait ikusi nahiko nuke, adibidez, parlamentu batean. Eztabaida interesgarri horrek ondorengo utzi zuen agerian: oso duina eta ausarta den Espainiako ezker bat dugu aurrean –Monereok ordezkatzeko duena–, borroka eta desobedientziatik datorrena, baina ez duena ezertxo ere ulertzen. Kataluniari begira erabateko miopia dutela erakusten ari dira. Katalanak, nolabait, haserre dauden espainiar batzuk garelako esatera murrizten da beren mezua. Haien boterean jarritako gero dena konponduta dago, arazoa Rajoy delako. Baina arazoa askoz harago doa. Guk oso argi dugu hau guztia Espainiarengatik ere egiten dela. Espainiako Estatua demokratizatzeke aukera bakarra Kataluniako autodeterminaziotik pasatzen da.

**CUPEk amore eman izan balu eta egungo president-a Artur Mas balitz, hau guztia posible litzatekeela uste duzu?**

Gogoan daukat garai hartan CUPEko zenbait lagunengan artean tentsioa eragin zuen zerbait esan nuela: “Masek ordezkatzeko duen hori gabe, ez dugu egingo”. Horrekin adierazi nahi nuen independentismo mota asko daudela, jendea oso bide ezberdinetatik heldu dela hona: arrazoi ekonomikoak, identitarioak, ideologikoak –hori da nire kasua–, alderdikoiak, eta abar. Eta bada independentismo mota bat presidentzialista dena, ‘masismoa’. Estatu bat gure kontra edukita eta hauteskunde



plebiszitarioren ostean gehiengo argia izanik, inor ez dago soberan.

Zientzia fikzio politikoa egitea da, baina egia da aldaketa eragin zuela PDeCATen, eta agian, hori gabe aurpegi eta lider berriak geroago helduko zirela. Halere, ez dezagun aherentzi, Generalitateko president-a izan gabe ere, hor dagoela Artur Mas. Beragatik honetan sartuta dagoen jendea, masismoa, ordezkatzeko jarraitzen du.

**Santander, BBVA, La Caixa, Sabadell eta Popular bankuek orain bi urte komunikatu bat sinatu zuten esanez alde bakarreko independentzia aldarrikatuz gero Kataluniatik alde egingo dutela.**

Lehenik, horrek gezurtatzen du prozesu hau Kataluniako burgesiak gidatutakoa dela dioen mantra hori. Hala balitz, galdera hau ez litzateke planteatuko, eta, gainera, honezkeroko independenteak ginateke. Bigarren, jende horrek ez du ideologiarik. Akaso zerbait badu, baina nagusia dirua da. Erabateko pragmatismoak zuzentzen ditu. Gehiago ala gutxiago gustatuta ere, Katalunia ekonomia indartsua da, Espainiako Estatu motor ekonomikoa. Beraz, jende horrek nahi duen gauza bakarra da dolar bakar bat ere ez galtzea.

Baietzak irabazten badu, hurrengo egunean Espainiako Estatuak izango du interes handiena Kataluniari gauzak ondo joan dakizkion. Prozesua irekiko dugu den-dena negoziatzeko, baita aktibo eta pasiboak ere. Beraz, ez dut uste problemarik izango denik, ni finantzen

munduarekiko sektore kritikoenetakoa izanik ere.

**Zer etor daiteke Merkel, Macron eta enparauen Europar Batasunetik?**

Europa ez da existitzen, bankuak dira. Doilorra eta zitala da Europar Batasuna, Mediterraneo eta Mazedonia eta Grezia arteko mugako irudiak ikustea besterik ez dago. Baina horiek ere pragmatiko hutsak dira. EBk Katalunia botatzen duen edo emaitza demokratikoari muzin egiten dion egoera bat irudikatzea oso zaila egiten zait. Hungariari edo Greziari EBtik irteten utzi ez dieten berberak dira.

Jakitun gara Katalunian gertatzen ari denari buruzko interesa gero eta handiagoa dela botere-gune horietan ere.

**Zahartutako Mendebaldeko gizarte atzerakoiak, berez, uzkurak dira edozein aldatetarekiko. Independentzia prozesu orok aztoratzen du herritarren egunerokotasuna, era gogor ala apalago batean. Askotan ez al da minik gabeko prozesu bat saltzen ari?**

Arrazoi osoa duzu. Eskozian gazteen %70ak independentziaren alde bozkatu zuten. Adinekoengatik galdu zen erreferenduma, beldurratik. Beldurraren diskurtsoarekiko sektore ulerberena da, pentsioen gaietatik-eta. Hemengoak kafiarra da. Rajoy da pentsioen sistema lurperatu duena eta berak gu ipintzen gaitu pentsioak galtzeko arriskutzat.

Nire esperientziatik, hemen adineko bozka-emaileak, oro har atzerakoia

eta PDeCATen bueltakoa dena, erabat mobilizatuta daude. Jende asko jabetu da arazoa ez dela aldaketa, baizik eta gaur egun bezala jarraitzea. Problema ez direla etorkizuneko pentsioak, gaur egungoak kobratzeari noiz utziko diogun baizik.

Baina oso ados nago zurekin ondorengo zentzuan: independentziaren hurrengo egunean dena zoragarria eta Katalunia aparta izango dela dioen diskurtsoetik urrunduko behar gara. Ez du zertan hala izan behar, osatuko diren hegemonia eta bozkatu diren proposamenen arabera izango da. Gauzak aldatzeko aukera bat baino ez da Kataluniako independentzia. Hori besterik.

Orain dela 80 urte lapurtu ziguten herri-eredua berreskuratzeko aukera bat da, denok berdina izango garen errepublika bat, non ez den izango, abizenari esker, diru publikotik 8 milioi euro kobratzen dituen familiarik. Horregatik bakarrik merezi du. Ni oso bat nator David Fernadezen esaldi honekin: "Gure M15a prozesua da". Jende askok dena galdu zuten, baita beldurra ere. Eta urriaren batean hori erakutsiko dela konfiantza osoa dut. Hautetontziek agintzen dutenean, emaitza ez da inoiz ziurra izaten. Pentsa, nik ez dut ezagutzen PPri botoa ematen dion inor eta hauteskundeak irabazten dituzte. ■

» Hamar galdera-erantzun gehiago [www.argia.eus](http://www.argia.eus) webgunean